

KOFESIOA

Jokalariak:

APEZA

PANPI

*(Apeza jarririk dago. Panpi belaunikatzen da. Biek gurutzearen seinalea egiten dute:
«Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean, halabiz».)*

PANPI: Benedika nezazu, ene Aita, zeren egin baitut bekatu.

APEZA: Errazu «Kofesatzen nitzai»

PANPI: «Kofesatzen nitzai» Jainko guziz boteretsuari, Maria beti Birjina dohatsuari, Jondoni Mikael Arkanjeluari, Jondoni Joanes Batistari, Jondoni Petri eta Paulo Apostoluer, Saindu guzietan, ene Aita, zeren egin baitut sobera bekatu, gogoz, hitzez eta obraz; ene faltaz, ene faltaz, ene falta handiaz...»

APEZA: Zenbat denbora du ez zarela kofesatu?

PANPI: Urte bat, xuxen xuxena.

APEZA: Eta... zer urte mota iragan duzu?

PANPI: Uste dut, Aita, ez dudala hain gaizki pasatu...

APEZA: Lehenbiziko manamenduan...

PANPI: Otoitzak egin ditut, egun guziz, artoski!

APEZA: Bigarrenen?

PANPI: Ez dut beti Jainkoaren izena ongi erabili. Lehen manamenduan, bekatu ez, bestean bai, kitto!

APEZA: Hirugarrenen?

PANPI: Mezarik ez dut huts egin...

APEZA: Laugarrenen?

PANPI: Aitamak desobeditu ditut. Bestalde, aitari, asto haundi bat zela erran diot! Hirugarren manamenduan, bekatu ez, laugarrenen bai, kitto!

APEZA: Bosgarrenen?

PANPI: Malezia izigarri bat atxiki dut auzokoen kontra...

APEZA: Eta seigarren-no hortan, baduguia zerbait aitortzeko?

PANPI: Ez, Ez. Zorigaitzez, ez gogoz, ez hitzez, ez obraz. Niet. Seigarrenen, ez dut deus erraitekorik. Beraz, bosgarrenen bekatua bai, seigarrenen ez, kitto!

APEZA: Zazpigarrenen?

PANPI: Ez dut deus ebabsi.

APEZA: Zortzigarrenen?

PANPI: Gezurrak erran ditut. Dotzenan hamahiru! Zazpigarrenen beraz, bekatu ez, zortzigarrenen bai, kitto!

APEZA: Bederatzigarrenen?

PANPI: Lohikeriazko gogorik ez dut ukan.

APEZA: Hamargarrenen?

PANPI: Bestenetik hartzeko gogoa... ah, hori bai! Eta ez guti! Azken bi manamenduetan beraz batean bekatu ez, bestean bai, kitto! Horra ene kondu garbia! Orain zuk ikus Aita absoluzienarik emanen dautazunez...

APEZA: Azken aldian ukan zinuena?

PANPI: Bai.

APEZA: Azken aldian bai, aldi hontan ez, kitto!

(Panpi zutitzen da, koleran...)

PANPI: Zer den haatik... Apezak azken hitza beti bere!